

/ Nabarmentzekoak

- > Ertibil hilaren 17an hasiko da Punta Begoñan eta bi bisita gidatu eskainiko ditu (3. or.)
- > Getxok Klima eta Energiaren Tokiko Plana edukiko du (4. or.)
- > Eskola Bideak ikasturteari amaiera eman dio eskolara oinez joatea sustatzeko ekintza berriekin (4. or.)



*Janari xahuketari buruzko kanpaina (4. or.)

Umorezko ikuskizuna. Hilak 11, ostirala, 20:00etan, Muxikebarrin, "Nahastumbury" (euskaraz), Barretxerkarekin. 8€.

**A-
GENDA**

Umorezko ikuskizuna. Hilak 12, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Palabras mayores", Alex O'Doghertyekin. 8€.

Getxoko HAPO berriaren aldeko Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuspenerako egindako Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa aldeko jarrerarekin jaso du Udalak. Hori funtsezko urratsa da etorkizuneko ikuspegiarekin, ingurumen-konpromisoarekin eta erantzukizun kolektiboarekin disainatutako hiri-eredua behin betiko onartzeko eta indarrean sartzeko.



Amaia Aguirre alkateak oso positibotzat jo du ebazpena. "HAPO honekin, Getxok pertsonengan, gaur egun duen ongizatean eta biharko uzten dugun ondarean pentsatzen duen udalerrria izatea aukeratzen du. Planak hiria zorroztasunez, erantzukizunez eta anbizioz eraikitzen du, hemen bizi, lan egin eta gozatu ahal izatearen ziurtasunarekin, garenari eta izan nahi dugunari uko egin gabe". Aguirrek gogoratu duenez, "HAPO etorkizunerako begirako orainaldiko ituna da, lurraldea modu koherentean antolatzen duena, natura- eta kultura-ondarea zaintzen duena, eta bizileku- eta ekonomia-beharrei erantzuten diena, hurbiltasun-, oreka- eta pertenezia-logikaren arabera".

HAPO berri hau ez da soilik tresna tekniko bat, baizik eta balio kolektiboko erabaki bat, hau da, alde zurrik eta sentsibilitatez planifikatuta egungo eta biharko erronkei aurre egiteko. Eraginkortasunean eta ekitatean oinarrituta, Planak udalerririk zeharkatzen dituen trantsizio demografiko, sozial eta ekologikoei erantzuten die, eta inklusioaren, iraunkortasunaren eta lurralde-orekaren ikuspegitik egiten du.

Ildo estrategiko nagusien artean, hurrengoak nabarmentzen dira:

- **Aurreko HAPOn aurreikusitako lurzoru urbanizagarriaren % 70 baino gehiago desklasifikatzea** eta horrek esan nahi du hazkundera mugatzearen eta ingurune naturala babestearen aldeko apustu handia egitea.
- **Dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoru oneratzearen eta eraginkortasunez erabiltzearen aldeko apustua**, sakabanatzea saihestuz eta eskuragarri dagoen espazioa zentzuz erabiltzeari lehentasuna emanez.
- **Ingurumen-irizpide aurreratuak integratzea**, habitat naturaletan, airearen kalitatean, mugikortasun iraunkorrean eta klima-aldaketara egokitzean arreta berezia jarritz.
- **Espazio publikoa eta mugikortasun iraunkorra hobetzea**, ingurune irisgarriagoak, osasungarriagoak eta erresilienteagoak sustatuz.
- **Balio handiko etxebizitza-estrategia eta jarduera ekonomikoa garatzea**, errealitate demografikoari, eta bizitzeko, ekoizteko eta elkarrekin bizitzeko modu berriei egokituta.

Gainera, ebazpenak azpimarratzen du jarraitutako prozedura zehatza eta parte-hartzailea izan dela, administrazioei, gizarte-kolektiboari eta herritarrei egindako kontsultak barneratuz, baita azken proposamenaren alegazio eta hobekuntza tekniko ugari ere.

Joe Lovano saxofoi jotzaileak eta Dave Douglas tronpeta jotzaileak emango diote amaiera Getxo Jazz jaialdiari

Joe Lovano saxofoi-jotzailearen eta Dave Douglas tronpeta-jotzailearen emanaldiekin amaituko da Getxo Jazzaren 48. edizioa. Egunotan, programazio horrek aukera ematen dio publikoari generoaren izen handiez eta artista eta banda gazteez gozatzeko.

Joe Lovano uztailaren 5ean, larunbata, igoko da Muxikebarriko agertokira, 22:00etan, Talde Lehiaketan parte hartu zuten azken banden emanaldiaren ondoren: L.A.B. Trio. Jazzaldian gehien errespetatzen eta estimatzen den saxofoi-jotzaileetako bat da Lovano. Berritzailea, espontanea eta inprobisatzaile handia, 60ko hamarkadaren amaieran hasi zen nabarmentzen, beti teknika bikain batek eta irudimen emankorrak bermatuta. Marcin Wasilewski piano-jotzailea buru duen hirukote poloniarrekin batera joko du. Jazz europarraren etorkizun handiko taldeetako bat da, eta Slawomir Kurkiewicz (baxua) eta Michal

Kiskiewicz (bateria) osatzen dute hirukotea.

Jaialdiaren azken kontzertuak igandean, hilak 6, izango dira. 21:00etan, lehiaketako talde irabazlea arituko da, eta, ondoren, Dave Douglas tronpeta-jotzaile ospetsua buru duen laukotearen txanda izango da. Bere interakzio musikal intimoarekin, prestakuntza honek aldi berean pertsonala eta hedakorra den entzumen esperientzia bat eskain-

tzen du, jazzaren aldakortasuna eta sakontasun emozionala erakusten dituen. Getxon, Douglasek Marta Warelis (pianoa), Nick Dunston (baxua) eta Joey Baron (bateria) izango ditu lagun.

Arratsaldeko eta familiako doako kontzertuek, gauerdiko jam session-ek eta kaleko musikak osatuko dute egitaraua. Egitaraua: <https://labur.eus/nbpvpax3>



Joe Lovano



Dave Douglas



UZTAILAK 3 OSTEGUNA

Getxo Jazz. Hirugarren Milurtekoa. 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Daahoud Salim Quintet. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, IMB Special 4tet. Ondoren, **ordainezko saioa:** Paquito D'Rivera. Sarrera: 24€.

Segurtasunari buruzko hitzaldia adinekoentzat. 18:00etan, Ibar Nagusien Etxearen egoitzan (Romo), udaltzainen eskutik. Informazioa: ibarnaqusi@gmail.com

UZTAILAK 4 OSTIRALA

Getxo Jazz. Marching Band. 19:00etatik aurrera, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Elia Bastida Trio. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, César Vidal & Artikulation Band. Ondoren, **ordainezko saioa:** Cécile McLorin Salvant. Sarrera: 24€. **Jam Session.** 23:45ean, Piper's Irish Puben, Reservoir Monks.

Behaketa astronomikoa. 23:00etatik aurrera, Galeako Gotorlekuaren aparkalekuan, familia-esperientzia. Bertan behera geratuko da euria eta/edo hodeiak daudenean. Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

UZTAILAK 5 LARUNBATA

Getxo Jazz. Familiarako saioa. 13:00etan, Algortako Geltokia plazan, Triz Quintet. **Marching Band.** 13:00-14:30 eta 19:00-21:00, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Igor Senderov Quartet. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, L.A.B. trio. Ondoren, **ordainezko saioa:** Joe Lovano & Marcin Wacilewski. Sarrera: 24€. **Jam Session.** 23:45ean, Piper's Irish Puben, Reservoir Monks.

Getxo Eszena Kalean. Dantza. 18:30ean, Bizkaia Zubitik Areetako Geltokia plazara, "Euskorleans", Kukai Dantzarekin.

Antzetzutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdcki86>



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

UZTAILAK 6 IGANDEA

Getxo Jazz. Familiarako saioa. 13:00etan, Algortako Geltokia plazan, Capitán Corchea: Sax & Wings. **Marching Band.** 13:00-14:30, Algortako kaleetatik, Iruña Jazz Brass Band. **Hirugarren Milurtekoa.** 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, Voices for the Duke. **Talde lehiaketa.** 21:00etan, Muxikebarrin, talde irabazlea. Ondoren, **ordainezko saioa:** Dave Douglas Quartet. Sarrera: 15€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, aurrealdean, "So in love" Ainara Ortega eta Joaquín Chacónekin.

UZTAILAK 8 ASTEARTEA

Erakusketa. Txurruka kaian, "Artearen ibilbidea", Bilboko Arte Ederren Museoko artelanen erreproduzioak. Uztailaren 14ra arte.

UZTAILAK 9 ASTEAZKENA

Bertso Jaialdi Mundiala. 19:00etan, Muxikebarrin, bertso jaialdi esperimental, Paule Loizaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Joanes Illarregi eta Sustrai Colinarene eskutik. Antolatzailea: ALBE-Algortako Bertso Eskola. Gonbidapenak: <https://labur.eus/wx3tkg8y>

UZTAILAK 11 OSTIRALA

Umorezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Nahastumbury" (euskaraz), Barretxerarekin. 8€.

UZTAILAK 12 LARUNBATA

Umorezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Palabras mayores", Alex O'Doghertyrekin. 8€.

Getxo Eszena Kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Claudette", Balance-toi & Maleta Company. Sarrera doan.

Antzetzutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdcki86>

UZTAILAK 13 IGANDEA

Haur ikuskizun musikala. 16:00, 17:15 eta 18:30ean, "Bob Marley for babies", La Petita Malmalugarekin. 0-3 urte. 6€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, aurrealdean, Lorelei Green.

- Ingelesa. Irakasleak eskola partikularrak ematen ditu udan. Tel.: 687 00 06 50 (Romo).

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Getxon porturatuko diren gurutzaontziek ia zerora murriztuko dituzte isurketak 2027an

Getxon porturatuko diren gurutzaontziek ia zerora murriztuko dituzte portuko isurketak 2027an, ekaineko ohiko osoko bilkuran, Iñigo Urkitza Ingurumen zinegotziak adierazitakoaren arabera. EH-Bilduk Estatuko Gobernuari itsas bidaiak sortzen dituzten emisioei eta ingurumen-kutsadurari buruzko ingurumen-azterketa bat hastea eskatzeko aurkeztutako mozio bati erantzunez, Urkitzak adierazi zuen Portu Agintaritzak iragarri duela 2027rako OPS (Onshore Power Supply) sistema ezarriko duela Getxon. "Horri esker, itsasontziak sare elektrikora konektatuko dira eta sorgailuak itzailiko dituzte. Hala, portuko emisioak ia zerora murriztuko dira. Gainera, Bilbo aitzindaria da gas natural likidotua (GNL) ordezkotzeko erregai gisa erabiltzen, horrek are gutxiago kutsatzen du". Mozioa atzera bota zen.



eta 100.000 autok kutsatzen dutena baino gehiago kutsatzen du". Elkarrekin Podemosek adierazi zuenez, "eredu turistiko hori oso kutsagarria da eta ez du eragin positiborik tokiko merkataritzan".

Ingurumen zinegotziaren ustez, EH Bilduren mozioan "puztutako datuak daude, gurutzaontzi bat eta milioika auto alderatzea bezalako konparazio hiperbolikoak, eta eskumenak eta dagoen informazioa kontuan hartzen ez dituzten proposamenak".

EH-Bilduk adierazi zuenez, "aurten Getxora etorriko diren gurutzaontziek 245.000 autok kutsatzen dutena baino gehiago kutsatuko dute beren ibilbidean zehar. Gurutzaontzi batek hegazkin batek bidaiari bakoitzeko baino bi aldiz CO2 gehiago isurtzen du

Hain zuzen ere, Udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPK gogorarazi zuten itsas trafikoaren gaineko eskumenak eta haren ingurumen-kontrola ez dagozkiola Udalari, Portu Agintaritzari baizik. Horri dagokionez, Urkitzak

adierazi zuenez "administrazio honek analisiak egiten ditu aldizka airearen eta uraren kalitatea aztertzeko. Getxon neurketa puntuak daude, txostenak daude eskuragarri eta auditoretzak koordinatzen dira organo eskudunekin. Ondorioak argiak dira: ez dago frogarik baieztatzeko gurutzaontziek gure ingurunean kutsadura-maila adierazgarriak sortzen ari direla. Era berean, ezin dugu ahaztu gurutzaontzien trafikoa ez dela portuko trafikoa %2ra iristen".

Udal Gobernuak azpimarratu zuen, gainera, Getxoko eredu turistikoaren eredu jasangarria dela eta ez dagoela gurutzaontzien trafikoa mende, nahiz eta jarduera ekonomikoa (Euskadi osora iristen dena), tokiko enplegua eta Getxorako nazioarteko ikusgarritasuna sustatzen dituen.

HAPOri buruzko kontsulta lotesle bat deitzeko mozioa atzera botata

Ekaineko osoko bilkuran herriarren mozio bat aurkeztu zen Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari (HAPO) buruzko kontsulta loteslea deitzeko, baina ez zen onartu. Hirigintza Plangintza eta Diziiplina Arloko zinegotzi Álvaro Gonzálezek adierazi zuenez, planean parte hartzeko mekanismo ugari egituratzeaz gain (legeak ezarritako gutxiengoetatik harago), legez ezinezkoa da herri-kontsulta loteslea egitea. "Kasu hau ez dator bat Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 82. artikuluan jasotako kontsulta lotesleen deialdietarako kasu bakar batekin ere. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak argi utzi du HAPO gisako tresna batek udalerrira osoan eragina duela eta, beraz, ezin duela kontsulta loteslerik egin".

handitzen da; gainera, etxebizitza libreaki lehentasuna emango zaio, etxebizitza publikoaren aurretik ere; landa-lurzorua beteko da, Azkorin eta Andra Marin 3.000 etxebizitza eraikiko direlako; eta 4.600 etxebizitza berri eraikiko dira azken 20 urteetan 7.000 biztanle galdu direnean.

EH-Bilduk eta Elkarrekin-Podemosek mozioa babestu zuten, eta udal Gobernuak eta PPK hura atzera bota zuten. EAJk eta PSE-EEK Getxok bizi duen bizitegi-larrialdi bati erantzuten diola azpimarratu zuten, etxebizitza duin baten alde eginez. Plangintza Arloko zinegotziak ziurtatu zuenez, "ez dira 200 etxebizitza eraitsiko jabetzaren gehiengoaren baimenik gabe eta, are gutxiago, bermerik edo biztanleak birkokatu gabe. Era berean, 'baserri historikoak' eraistez hitz egiten da, berrez inolako ondare-babesik gabeko eraikinak direnean. Horieta asko jabeek beraiek aldatu dituzte, izan zezaketen edozein balio arkitoniko galduta".

Gonzálezek uholde arriskua handitzea gezurtatu zuen, "ibaien eta erreken joera hidraulikoa hobetzeko neurri aktiboak jasotzen baititu", eta hori da alokairuko etxebizitza publikoetarako berariazko lurzoria kalifikatzen duen Euskadiko lehen Plan Orokorra. "Gainera, 2 milioi m²-ko lurzoria landa-lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzearen aldeko apustua egiten du, Azkorin birika berde handi bat sortuz (aurrekaririk gabeko jarduera Euskadin). Eta bere erronketako bat birsorkuntza demografikoa da, hain zuzen ere, biztanleria galtzen ez jarraitzea".

PPK bestalde, balioan jarri zuen Planak hobera egin duela aurkeztutako alegazioekin eta udalerriko bizilagunen parte-hartzearekin, esaterako, Salsidun, Martiturrin, Errotatxun, Andra Mari-Gure Lurra elkartean, etab. Jendearen eskarien eta galderen txandan, hiru pertsonak parte hartu zuten HAPOren inguruko zenbait gairi buruz.



Bertso jaialdi mundiala eta Balendin Enbeita lehiaketa

Gertakari bitxiz eta sinestezinez beteko da Bertso Jaialdi Mundiala datorren uztailaren 9an, asteazkenean, 19:00etan, Muxikebarrin. Ezezagunerantz joango den bidaiari Unai Mendiburu, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Unai Iturriaga bertsolariek hartuko dute parte aurten. Ikuskizun horretan sartzeko gonbidapena eskura dezakete interesatuek bertsorrerak.eus atarian eta azken momentuan behar izanez gero albegetxo@gmail.com emailaren edo

Ainara Ortega eta Joaquín Chacónen kontzertua

Ainara Ortega abeslariak eta Joaquín Chacón gitarra-jotzaileak kontzertua eskainiko dute Muxikebarriko kanpoaldean, uztailaren 6an, 13:30ean, Kristalezko Kioskoaren programazioaren barruan.

Binaka egindako proiektu honek, prestakuntza intimo, ezohikoa eta zorrotza bezain hauskorra, erreperitorio mimatu bat sortzen du, jazzaren soinu unibertso konpositore handiak ohoratzen dituen (Billy Strayhorn, Cole Porter, Jerome Kern, Michel Legrand, etab.).

Ainara eta Joaquín zu eta zu *hizketan* ari dira, tradizioarekiko maitasuna eta sormen-askatasuna arnasten dituen elkarrizketa batean.



605704385 telefono zenbakiaren bidez ere eskatu ahal izango dute.

B. Enbeita Bertsopaper Lehiaketa
Bestalde, irailaren 30era arte zabalik izango da Balendin Enbeita Bertsopaper Lehiaketaren XVI. ediziorako lanak aurkezteko epea. Bertsoen gaia, neurria eta doinua libreak izango dira. Helduek (19 urtetik gorakoek) 8 eta 12 bertso artean egin beharko dituzte eta gazteek (18 urtera arte) 6 eta 10 bertso artean. Parte hartzaileek nahi beste bertso-sorta berri bidal dezakete, postaz (Algortako Bertsolari Eskola. Martikoena 16, 2. solairua. 48992 Getxo) edo balendinenbeita@gmail.com emailaren bidez. Sariak 1.000 eta 100 euroren artekoak izango dira. Informazioa: 605705385, albegetxo@gmail.com / www.albe.eus



“EuskOrleans”, musika eta dantza ikuskizun ibiltaria Aretan, Kukai Dantzarekin

Uztailaren 5ean, larunbata, Getxo Jazzaren 48. edizioa dela eta, eta Getxo Eszena Kalean kaleko arte eszenikoaren programaren barruan, Kukai Dantzak eta EuskOrleans musika bandak Aretako kaleak girotuko dituzte musika ikuskizun ibiltari batekin. Irteera 18:30ean izango da Bizkaia Zubitik eta desfilea, bi ordu beranduago, Geltokia plazan amaituko da. EuskOrleans Dixie Band doinu euskaldun ikonikoen eta 20 eta 30eko hamarkadetakako New Orleanseko espiritu biziaren arteko fusio bikaina da. Bere interpretazioetan, Benito Lertxundiren *Bizkaia Maite*, Peio Joxepe, Boga-Boga, Mikel Laboaren *Txoriak-txori* edo Pantxoa eta Peioren *Batasuna* bezalako abesti enblematikoak daude, jazzaren urrezko garaia gogora ekartzen duten konposizio zirrargarri bihurtzen dituztenak.

Getxo Kulturako lokalak eta espazioak elkarteei lagatzea

Uztailaren 30era arte, irabazi asmorik gabeko Getxoko kultur elkarteek hainbat areto erabiltzeko eskatu ahal izango dute Algortako eta Romoko Kultur Etxeetan eta Andrés Isasi Musika Eskolan. Getxo Kulturak gune horiek eskaintzen ditu beren ohiko jarduerarako ahal izan dezaten, eta, horrela, herritarren ekimena bultzatzen du kulturaren hedapenaren esparruan.

Elkarteek erabili ahal izango dituzten espazioak askotarikoak dira. Algortako Kultura Etxean (Villamonte), 25 eta 60 pertsona arteko edukiera duten bost areto daude horretarako, nahiz eta bes-

te gela batzuetan konbinatu daitezkeen, 70, 100 eta 145 pertsona-ko espazioak sortuz. Romo Kultur Etxean hamaika areto daude: erabilera anitzeko lau (8-25 pertsona), lau gorputz adierazpeneko eta kantuko jardueretarako, eta gainerako hiru musika entsegetarako kabinak dira. Ekitaldi aretoa ere eska daiteke (99-299 pertsona). Aretako Musika Eskolako auditoriuma (162-320 pertsona) eta Algortako Musika Eskolako entsegu gela nagusia ere eskuragarri daude, 40 lagunentzako edukierarekin.

Informazioa eta oinarriak: <https://labur.eus/eepyvv8f>

Ertibil hilaren 17an hasiko da Punta Begoñan eta bi bisita gidatu eskainiko ditu

Punta Begoñako galeriek Foru Aldundiak antolatutako Arte Bidualen Ertibil erakusketa ibiltaria hartuko dute uztailaren 17tik abuztuaren 31ra. Doako sarrerarekin, Bizkaian lan egin eta bizi diren 18 sortzaile emergenteren lanak ikusi ahal izango dira bertan.

Gainera, uztailaren 17an, Oihane Sánchez Duro artista, ikertzaile, doktore eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko irakasleak bisita gidatuak egingo ditu: 17:00etan (euskaraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz). Doako bisita gidatueterako aldeztatik izena eman beharko da hemen: <https://labur.eus/hnjlfemt>

Ertibilek pintura, eskultura, gra-



batua, argazkia eta bideoa erakusten ditu eta bere ibilbideko lehen etapan Bizkaiko artistei laguntzea du helburu.

Artearen ibilbidea, beste uda batez, Getxora iritsiko da

Evaristo Txurruka kaiko kai-muturrak *Artearen Ibilbidea* erakusketa ibiltariaren edizio berri bat hartuko du uztailaren 8tik 14ra, BBK-k eta Bilboko Arte Ederren Museoko kultura herritarrengana hurbiltzeko bultzatutako ekimena. *Historia hilezkorra* goibururekin, gai horrekin lotutako artelan esanguratsu batzuen erreproduzioak ikusi ahal izango dira. Lan horien originalak Arte Ederren Museoan daude. Dagozkien audio-azalpenekin batera joango dira (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez), eta doan deskargatu ahal izango dira telefono mugikorretan, QR kode baten bidez.





Prebentzio-tratamendua mokodun gorria eta pinu-beldarraren aurka

Udal Lorezaintza Zerbitzuak prebentziozko tratamendua hasi du mokodun gorria intsektuak eragiten duen kaltearen aurka udalerriko hogeit bat palmondotan eta pinu-beldarraren aurka, Las Mercedes kalean. Zehazki, aplikatu beharreko tratamendua landare-endoterapia da, teknika fitosanitario berritzailea, zuhaitzaren sistema baskularrean baimendutako produktu bat zuzenean injektatzean datzana, haustutze gabe eta tratatutako zuhaitza zulatu beharrik gabe. Horrela, aipatutako intsektuenak bezalako izurriei arbola barrutik eraginkortasunez aurre egiten zaie. Teknika horrek hainbat abantaila ditu: ez da lainorik, hautsik edo usainik sortzen; bateragarria da eremu publikoekin (parkeak, ikastetxeak, hiriko lorategiak...), ez baitu arriskurik pertsonentzat edo animalientzat; eta fauna osagarria eta ingurumena errespetatzen ditu, besteak beste.

“Gobernu taldean ingurumen politika arduratsu baten alde egiten jarraitzen dugu, prebentzioan, berrikuntzan eta ingurunearekiko errespetuan oina-

Sarrikobaso-Azkorri bizikleta-erreia

Azken egunotan Maidagan kalea eta Zientoetxe errepidearen bidez Sarrikobaso eta Azkorri lotzen dituen bidegorriaren seinaleztapena berritzeko lanak egiten ari dira. Seinaleztatutako bide partekatu edo mistoa da, ibilgailuak eta bizikletan batera ibiltzeko, non lehen-tasuna azken horiek duten. Bide horietan abiadura 30 km/h-ra mugatuta dago. 3.964 metro linealeko esku-hartzea izango da bertan egingo dena, bi noranzkoetarako. Maidaganetik Andra Mari Ikastetxe Publikora eta Getxo III-Aixerrota Institutura doan Peña Santa Marinako tarteak ere horrelako seinaleak izango ditu.

rrituta. Jarduera honek gure auzoen ongizatearekin eta Getxoko natura ondarea babesten duen kudeaketa publikoarekin dugun konpromiso irmoa islatzen du”, adierazi du Iñigo Urkitza Ingurumen zinegotziak.

Mokodun gorria koleoptero moduko bat da, gurgurioen familia-koa, burdin-gorrixka kolorekoa eta 2 eta 5 zentimetro arteko tainakoa. Bere aurkako jardunari dagokionez, palmondo bakoitzari bi tratamendu egingo zaizkio, bi garaitan.

Pinu-beldarra intsektu lepidopteroa da, toxina baten ondorioz bere larbak erreakzio alergiko biziak eragin ditzake gizakiengan eta zuhaitzen hostoen erorketa artifiziala eragiten du.



Janari xahuketari buruzko kanpaina

Getxon janari xahuketari STOP kanpaina hasi da ostegun honetan, uztailaren 3an, elikagai xahuketaren arazoaz kontzientziatzeko helburuarekin. Kanpainaren hartzaile nagusiak udalerriko herritarrak eta ostalaritzako establezimenduak dira, eta haiei zuzendutako ekintza espezifikoak proposatuko dira gai horri buruzko kontzientziatzea sustatzeko. Gogoratu duela gutxi Udalak bat egin duela Eusko Jaurlaritzak bultzatutako *Elikagai-xahuketarik Ez Euskadin* Manifestuarekin; era horretan, Udalak kontsumo eredu bidezkoago, jasangarriago eta arduratsuago batekin duen konpromisoa indartzen du.

Elikagaien xahuketa arazo global bat da. FAOren arabera, urtero

munduan ekoizten diren elikagaien heren bat galdu edo xahutu egiten dira. Euskadin, Erika Fundazioaren iritziz, urtean 111 kg elikagai alferrik galtzen dira pertsonako.

Kanpaina honen esparruan egingo den lehen urratsa ostalaritza-establezimenduetara bisitak egitea izango da. Lehenengo hurbilketa batean, jatetxeak, erretegiak, pizzeriak eta abar bisitatu-ko dira, 82 guztira, eta gutun bat emango zaie kanpainaren zergatia azaltzeko eta parte hartzeko gonbidapena egiteko. Atxikita-ko establezimenduei kit batzuk emango zaizkie bezeroek janari-hondarrak etxera eramane ditza-ten sustatzeko.

Eskola Bideak ikasturteari amaiera eman dio eskolara oinez joatea sustatzeko ekintza berriekin

2024-2025 ikasturtean zehar, Eskola Bidea proiektuak hainbat ekimen garatu ditu eskolarako mugikortasun jasangarriagoa eta seguruagoa sustatzeko. Ikastur-

teari hasiera emateko, zozketa bat egin zen ikasleen artean, haien inplikazioa motibatuz eta familiarak ere partaide bihurtzeko. Era berean, informazio-bilera baterako

deia egin zen, orain arte egindako jardueren berri emateko, baina parte-hartzea mugatua izan zen.

Martxoan, Eskolak Tipi-tapa oinezko esperientziak egin ziren. Ikastetxeen artean oso harrera ona izan zuen jarduera horrek, eta haur asko joan ziren eskolara lagunekin oinez. Ondoren, hurrengo hilabetean, apirilean, eta Jarduera Fisikoaren Munduko Egunarekin batera, Ingurumen Aretoak familiei zuzendutako Eskola Bideak Ginkana lehiaketa antolatu zuen. Bestalde, aste horretan bertan, ikastetxeek sentsibilizazio jarduerak batean parte hartu zuten, herritarren portaera aztertuz eta behar bezala jarduten zuten oinezkoak sarituz, hori guztia eskola-bideen aste tematikoaren barruan.

Ondoko lerrotan, martxoan zehar izandako esperientzietan parte hartu zuten ikasleek beren iritzia azaltzen digute Eskola Bideari buruz.


Zer iruditzen zaizu Eskola Bidea? Zer da gehien gustatzen zaizuna?

JULEN ARCAÑA,
EUROPA
IKASTETXEA.
LH3. maila.
9 urte.



Eskolako Bidea asko gustatu zitzaidan, oso dibertigarria iruditu zitzaidan. Eskolara bakarrik joaten nintzen lehen aldian zen, eta asko gustatu zitzaidan begiralearekin hitz eginez joatea.

XABIER DE LA IGLESIA,
ANDRA MARI
IKASTETXEA.
LH5. maila.
11 urte.



Niretzat oso ondo daude, lasai joan zaitezkeelako eskolara oinez eta zure lagunekin hitz eginez, eta denbora berehala pasatzen da.

MAIALEN CUADRADO,
SAN NIKOLAS
IKASTOLA.
LH 3. maila.
9 urte.



Inguruko lagunekin elkartzea eta ikastolara elkarrekin jaitea oso dibertigarria iruditu zait. Askok gustatu zait ere gure kabuz jaitea nagusien laguntza barik. Datozen kurtsoetan gustatuko litzaidake egunero horrela joatea.

“Busti zaitez Esklerosi Anizkoitzaren alde” kanpaina berriro abian



Aurten ere, uztailaren 6an, igandean, 12:00etan, *Mojate-Busti zaitez Esklerosi Anizkoitzaren alde* ekimenaren ekitaldi nagusia eta baina tradizionala izango dira Ereaga hondartzan. Jarduera solidario horren helburua sentsibilizatzea eta gaixotasuna ezagutaraztea da. 28. edizioarekin bat egingo duten Euskadiko udalerrietako hondartzetan eta igerilekuetan, ohi bezala, herritarrak bustiz parte hartze- ra gonbidatuta daude.

Getxon, interesa duten pertsonak Ereaga eta Arrigunaga hondartzetako uretan eta Fadurako igerilekuetan murgildu ahal izango dira. Elkarte antolatzailearen arabera, *“jarduera honek ikusgarritasuna eta bizipenak partekatzea ahalbidetzen du giro ludiko batean, bai bustitzen garenontzat, hitzez hitz, bai gurekin daudenontzat”*.

Udan minbizia prebenitzeko kanpaina



Bizkaiko Minbiziaren aurkako Elkarteak *Babestuta dago, baina bere larruazala ez* kanpaina jarri du abian, oraingoan, bereziki adingabe eta nerabeentzat, aire zabalean lan egiten duten pertsonentzat eta kirolarientzat. Ekimenaren helburua da eguzkitik ez babestearen arriskua azpimarratzea, eta sintomak garai detektatzeko prebentzio-aholkuak eta jarraibide praktikoak ematea, minbizi mota ohikoena delako, eta, gainera, haren intzidentzia % 40 handitu delako azken lau urteotan. Elkarteak Ereagako hondartzan izango da uztailaren 11n, ostira-lean, baina eguraldi txarra eginez gero, hilaren 18ra atzeratuko da.

Adierazpen Instituzionala LGTBIQA+ Eguna dela eta

Ekainak 28, LGTBIQA+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Aldeko Nazioarteko eguna ospatu zela eta, Bozeramaileen Bartzordeak Adierazpen Instituzional bat onartu zuen, bertaratutako taldeek aho batez (EH Bildu ezin izan zen egon justifikatutako ezusteko batengatik, baina bat egin zuen tesuarekin hile osoko bilkuran). Horretan, Udalak giza eskubideekiko

konpromisoa berretsi zuen, gorroto-diskurtsoen aurrean isilik ez geratzeko animatu zuen, pertsona guztiak gonbidatu zituen sentsibilizatzeko eta eskubideak defendatzeko jardueretan parte hartze- ra, eta azpimarratu zuen sexu- eta genero-aniztasunaren borroka eskalaz gizaratearen nortasun ikurra izan behar dela. Adierazpen osoa: <https://labur.eus/iyhmw4jd>



Serifalarisek urrezko Laus saria jaso du

Serifalaris taldeak, Marina Goñi Estudio eta Freskue estudioek osatutako diseinu grafikoaren foroak, urrezko Laus bat jaso du Bartzelonan, kultur proiektuaren identitatearen birdiseinuaren kategorian, diseinu grafikoaren eta komunikazio bisualaren sariaren 55. edizioan. Sariak Serifalarisen 11. edizioaren identitate bisuala aitortzen du, *Pilpila* izenekoa, eta bi estudio getxotarrek beren ekitaldiaren kontzeptualizazioan eta diseinu bisualean egindako lana, eta estatuko diseinu grafikoaren panoramari egindako ekarpena. Gainera, 2026ko ediziorako, Kultura Ministerioaren babesa jaso du, dirulaguntza gisa, aurkeztutako 582 proposamenen artean ondoen baloratutakoak baitaude. Bestalde, BANILA Studiok (Getxo Sormen Huben ostatatutako proiektua) eta Ang Studiok brontzezko Laus bat jaso dute Digital kategorian, Ang Studioren webgunetik.

KIROLAK

Olaia Tejada Sainz, Munduko txapeldun bikoitza



Olaia Tejada Sainz patinatzailea, Getxo Show Klubeko kidea, 2025eko Munduko txapeldun bikotza da, Novice Dantza Klasikoan eta Pro am NC modalitateetan, hain zuzen. Titulu bikoitz horri brontzezko domina bat gehitu dio koreografo bezala eta Top 5 sailkapenean sartu da Modern Ace Adult modalitatean.

Izadi Ruiz Monge, Espainiako txapeldunordea

Izadi Ruiz Monge patinatzaile getxotarra Espainiako gazteen txapeldunordea da patinaje artistikoan, Solo Dance modalitatean. Bigarren postu horrek, datorren irailean Italiako Trieste herrian jokatuko den Europako Txapelketarako txartela eman dio, besteak beste.



34. Euskal Kosta-Urrezko Balea

Euskal Kosta-Urrezko Balea Estropadak 34. edizioa beteko du Aburuko uretan Kurtzero motako be- laontzientzat eta Donostian Osiris motakoentzat. Aurten Hondarribian izango da helmuga bi klaseentzat,

eta bertan erabakiko da, igandean, hilak 6, 25 parte hartzaile ingururen artean zein izango den irabazlea. Ostiral honetan, hilak 4, izango da kurtzeroentzako lehen etapa, 60 miliako kostako estropada Hondarribiraino.

Udal talde politikoaren iritzia



UDAN BALIOETAN GOZATZEA



Kirola, kultura eta euskara dira Getxoko Udaletik eskaini ahal ditugun tresnarik funtsezkoenak ez soilik haurren garapenerako, baizik eta gure gazteek garatzeko espazioa ere izan ditzaten. Udako aisialdia, dagoeneko ikasturtea bukatu ondoren beren udako denboraldiaz gozatzeko hasten direnean, une interesgarria da. Izan ere, aldi horretan, askotariko arloetako eskaintza sorta handia eta kalitatezkoa izaten da.

Getxon, haurrentzako eta gazteentzako proposamen oso berezi eta zabala dago. Getxok eskaintzen dituen jardueren ikuspegi globaletik begiraturaz gero, harriarria da.

Getxoko Eusko Alderdi Jeltzaleak bere konpromisoak idatzi ditu, horiek betetzen direla egiaztatzeko.

21 kirol-campus antolatu dituzte Getxoko klubek Getxo Kirolak kiroldegiko instalazioetan: gimnasia erritmikoa, txirrindularitza eta BTT, errugbia, futbola, patinajea, eskubaloia, xakea, hockeya, igeriketa, multiabentura, campus inklusiboa, bela eta arrauna. Helburua argia da, kirola egitea eta aisialdi osasuntsua sustatzea, aldi berean, Getxoko familiek beren bizitza uztartzea errazten dugula.

Helburu berarekin eta beste aukera askorekin, Getxo Kirolak berak 1.500 plaza eskainiko ditu Faduran eta Gobelan, uda honetan, haurrentzako eta gazteentzako.

Jarduera gehiago txikientzako eta ez hain txikientzako, letren terrazak edo udako liburutegiak. Horiek gure herriko plazetan izango ditugu uztailan eta abuztuan eta irakurtzeko, tailerrak

eta jolasak egiteko eta ipuin kontalariak entzuteko aukera izango dugu. Borobia, Basarrate eta Gernika parkean, uztailan, eta Areta eta Algortako geltokiko plazetan zein Aldapa parkean, abuztuan.

Kukupraka, udal ludoteka; gaztelekuak, edo Bapiruke koloniak (guztiak Udal-gobernuak zuzenean sustatuta eta lagunduta) haur zein gazteek egun paregabe bez gozatzeko espazioak dira. Egun horietan zehar aisialdian eta harreman pertsonaletan sakontzeko aukera izango dute, betiere euskaraz. Gainera, benetan aberasgarriak izango diren esperientziak biziko dituzte uda garaian, oportunitate dauden bitartean.

Idatzita dauden konpromisoak, betetzen ditugun konpromisoak.



BERRIZ ERE, UDALBATZAK EZEZKOA EMAN DIO GETXON APARKALEKU EZA ARINTZEKO AUZIARI

Pasa den ekainaren 26an, Udalbatzan, mozio bat aurkeztu genuen. Horren bidez proposatu genuen **aldi baterako aparkaleku publiko bat gaitzea**, Algortako Ormetxe kaleko amaieran dagoen udal-lurzatian. Gaur egun ez dago urbanistikoki garatuta. Ekimenaren helburua da konponbide bat bilatzea Udalaren inguruan gero eta aparkaleku gehiago behar izatearen premiarik. Izan ere, bertan zerbitzu publiko ugari pilatzen dira: epaitegiak, Udaltzaingoaren komisaria, Aldundia edo udal-egoitza. Gainera, proposamenak barne hartzen du, **gutxi gorabehera, 20 plaza**

sortzea eta jarduketa erraz, merke eta **egiten arin** baten alde egingo da, udal-brigaden **egitekoen barruan** ere egon dadin, besterik gabe.

Nolanahi ere, neurria praktikoa eta iragankorra izan arren, gure proposamenari **ezezkoa eman zioten gainerako alderdi politikoek**. Beste behin ere ukatu dute aparkaleku falta nabarmena dela, hots, ez dute aukerarik eman behar konponbide bat abiarazteko **benetako mugikortasun arazo** baten aurrean (egunero, egoera horrek Getxotar ugariri eragiten die).



ehbildu

GURUTZAONTZIEK GETXON SORTZEN DUTE KUTSADURA AZTERTZEKO MOZIOA ATZERA BOTA DUTE PNVK, PSEK ETA PPK

Ekaineko Osoko Bilkuran gure udal taldeak aurkeztutako mozioa atzera bota zuten PNVren, PSEren eta PPren botoekin. Mozioaren bidez, gure udalerrira gero eta kopuru handiagoan heltzen diren gurutzaontziek sortzen duten kutsadura eta eragin soziala aztertzea proposatu genuen. Gure helburua argia zen: ingurumenaren eta herritarren osasunaren defentsan lehen urratsak ematea eta turismo eredu jasangarri baten aldeko norabidea ezartzea.

Mozioan hiru neurri nagusi proposa-

tzen genituen. Batetik, gurutzaontziek sortzen duten emisioen eta kutsaduraren ingurumen-azterketa abiatzea, Getxoko kostaldean eta herritarren osasunean duten eragina neurtzeko. Bigarrenik, herrian sortzen den turismoaren eragin sozialaren azterlana egitea. Eta, hirugarrenik, gurutzaontzien kopurua mugatzea.

Aurten 90 gurutzaontzi baino gehiago espero dira Getxoko portura ailegatzeko, iaz baino %35 gehiago. Hilabete honetan, egun bakar batean, hiru on-tzik 7.000 turista baino gehiago ekarri

zizuten. Horrek agerian uzten du prezio turistikoa eta kutsadura nabarmen handitzen ari direla gurean.

Transport & Environment bezalako erakundeek ohartarazi dute gurutzaontziak direla garraiobiderik kutsakorrenak. Batek 100.000 auto baino gehiago kutsatzen du eta bidaiari bakoitzeko hegazkin batek baino CO2 gehiago igortzen du. Hau guztia gertatzen ari da, bitartean gure hirietan auto kutsakorren erabilera mugatzeko neurriak ezartzen ditugun bitartean.

Horrez gain, gurutzaontziek sustatzen duten turismo-ereduak —“turismo express” delakoa— ez du inolako ekarpenik egiten herriko kultura, bizimodu edo merkataritza txikiaren garapen iraukorrera.

Guk argi daukagu, Getxok beste turismo-eredu bat behar du: jasangarria, osasungarria eta herritarren bizitzekin bateragarria. Eta horretarako lanean jarraituko dugu, ez dugu kutsadura masiboa eta jasangaitza normalizatzen utzi behar, eta are gutxiago, ezertxo ere neurtu gabe.

PSE-EE
PSOE

UDA BAT JAI SEGURUEN ETA INDARKERARIK GABEKOEN ALDE



ETXEBITZA
TURISTIKOAK

Uda-garaia Getxoko auzoko jaien sinonimo da: Paellen jai ospetsua (Bizkaiko txoko ugaritatik datozen milaka pertsona erakartzen dituena), Algortako jaiak, Romokoak, Portu Zaharrekoak, Aretakoak, Santa Anakoak eta Hezetasunekoak. **PSE-EEko kideok jai inklusibo eta askeak defendatzen ditugu**, Getxo alaitasun partekatuko gunea izan dadin eta **guztiok segurtasunez gozatzeko aukera izan dezagun**.

Indarkeriak inolako lekuri ez duen jaiak nahi ditugu. Emakumeok aisialdia partekatze eskubidea dugu, baita gaueko aisialdia ere, nahi dugunekin, beldurrik gabe eta seguru egoteko, eta hori guztia berdintasunean oinarrituta.

Zentzu horretan, **PSE-EEk lanean jarraitzen du, Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren kudeaketatik, pertsonak errespetatzen eta emakumeen aurkako indarkeriarik**

onartzen ez duen eredu bat bultzatzen. Jai bakoitzean gune moreak egongo dira, karpak baten azpian. Gune seguruak eta lasaiak izango dira, **erasoak jasanez gero, emakumeek edota LGTBIQ+ pertsonak profesionalen laguntza jaso ahal izan dezaten**. Era berean, aurrera egiten jarraitu nahi dugu, bai Jai Batzordeekin, bai eta mugimendu feministarekin ere koordinatuta, gure jaiak gune seguru izan daitezten.

Getxon legez kanpoko etxebizitza turistikoak areagotu dira. Batzuk identifikatu egiten dira herritarren salaketei esker. Nolanahi ere, beste askok onura propioak ateratzen dituzte. Arazo bat daukagu eta Udalak horren aurrean ez digu konponbiderik eman nahi. Udaltzaingoan ikerketa unitate bat sortzea proposatu genuen, bai eta Eusko Jaurlaritzari galdetu ere, zehapen prozesuak arintzeko eskumenei buruz. Hala ere, PNV, PSE eta PP kontra daude.